

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN SAILA

## 2794

*AGINDUA, 2017ko maiatzaren 23koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez elkarte eta kooperatibei zuzendutako laguntzetarako deialdia egiten baita, 2017-2018 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak gara ditzaten.*

Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, EAEko aginte publikoei dagokie osasuna sustatu eta indartzea jarduera sozio-ekonomikoan diharduten sektore guztietan, honako helburu hauek lortzeko: bizi-ohitura osasungarriak suspertzea, arrisku-faktoreak desagerraraztea, ondorio kaltegarrien eragina deuseztatzea eta, batik bat, osasunaren garrantziaz sentsibilizatu eta kontzientziatzea. Zehatzago, bigarren atalak dioenaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren ardura da osasunaren erakunde-esparrua zaintzea EAEn; xede horrekin, izan ere, gomendioak eman edo neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak, sektore politiko guztietan osasuna aintzat har dezaten, eta, era berean, diziplina anitzeko ekintzak bultzatuko ditu, osasun-ekintzen osagarri, biztanleen osasun maila etengabe hobetzeko.

Aipatutako legearen 3. artikulua adierazten du osasunaren alorreko euskal administrazioari dagokiola osasun publikoaren babes orokorra bermatzea, osasuna sustatzeko neurrien bidez. Halaber, lege horren 14. artikulua adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko organo guztiak, bakoitza dagokion sektoreko ikuspuntutik, elkar hartuta arituko direla osasun-hezkuntzaren eremuan sistematikoki gauza ditzaketen ekintzetan, funtsezkoak baitira pertsona bakoitzaren eta komunitatearen osasuna hobetzeko.

Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuaren 9.1 artikuluari jarraituz, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren zeregina da, besteak beste, politika eta esku-hartze eraginkorrak bultzatzea Jaurlaritzaren gaine-rako sailetan eta erakunde publikoetan –udalerrietan bereziki–, hiritarrek osasun- eta ekitate-maila handiagoak izan ditzaten.

Agindu honen xedea da, beraz, osasuna indartzea toki-eremuko jarduketetan eta osasun-arlokoak ez diren gainerako eremuetan. Ekimen hau zeharo loturik dago Europar Batasunak gomendaturiko «Osasuna politika guztietan» estrategiarekin, bai eta Osasunaren Mundu Erakundearen Osasunaren Determinatzaile Sozialen gainean Batzordeak egindako txostenarekin ere. *Osasuna politika guztietan* strategiaren oinarrian dagoen egiaztapena da osasun-sektorearen eraginpeko eremutik kanpoko faktoreek eragiten dutela, batez ere, osasunean.

Jarduera fisikoaren sustapenerako Torontoko Gutunak dio, argi eta garbi, ohiko jarduera fisikoak mesede egiten diola osasunari, gaixotasunak prebenitzen dituela, gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzen dituela, onura ekonomikoak ekartzen dituela eta ingurumenaren iraunkortasunari laguntzen diola.

Jarduera fisikoa egiten ematen dugun denbora gehituz eta jarduera sedentarioetan ematen dugun denbora gutxituz, populazio aktiboagoa lortuko dugu; horrenbestez, zenbait erronkari aurre egiteko aukera izango dugu, esate baterako: biztanleen etengabeko zahartzea eta osasun-sistemari eta gizarte-prestazioei eustea.

2013-2020rako Osasun Planaren helburuetako bat da herritarren artean jarduera fisikoa sustatzea eta sedentarismoa prebenitzea, EAEn jarduera fisikoaren sustapenerako Mugiment proiektuan zehaztutako jarraibideen eta estrategien arabera. Estrategia horien artean Mugikasi dago, non Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan eskola-bideak sortzera bideraturiko ekin-tzak proposatzen baitira.

Osasuneko sailburuaren 2017ko urtarrilaren 23ko Aginduaren bidez, Osasun Sailaren 2017ko diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zen, eta euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu zen. Plan horretan, I. eranskineko 3.1.4 epigrafean, honako hau jasotzen da. «Ikasleen artean mugikortasun aktiboa sustatzera bideratutako ekintzak garatzeko deialdia».

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen apirilaren 20ko 2/2017 Legean, deialdi horretarako aurrekontu-kreditua jasotzen da.

EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako guraso-elkarteen eta irakaskuntza-kooperati-ben helburuetako bat da ikasleentzako heziketa-jarduera osagarriak abiaraztea; ildo horretan, eskola-bideak garatzeko proiektuak egiten dituzte, eskola-umeek aukera izan dezaten ikastetxee-tarako joan-etorriak modu aktiboan egiteko.

Ikasleak kaleetan segurtasunez eta autonomiaz mugitu ahal izatea eta espazio publikoaren erabilera eta gozamina berreskuratzea da eskola-bideei buruzko proiektuen xedea. Gainera, eskola-giroan mugikortasun aktiboa sustatzea tresna eraginkor bat izan daiteke herritarrak txiki-txi-kitatik kontzientziatzeko jarduera fisikoak osasunari dakarkion onuraz.

Deialdi honen zein beraren ebazpen- eta izapidetze-jardueren esparru juridikoa bat dator honako xedapen hauekin: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuarekin, zeinak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen; Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren oinarritzko arauekin, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren oinarritzko arauekin, zeinak diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Errege-lamendua onartzen duen.

Deialdi honen laguntzek ez dute lehia faltsutzen edota faltsutzeko arriskurik eragiten. Hortaz, bateragarriak dira barne merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Trata-tuaren 107.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren eremua eta helburua.

1- Agindu honen xedea da EAEko elkarte eta kooperatibentzako laguntza ekonomikoak erregu-latzea, ikasleen osasuna eta autonomia hobetzen lagun dezaketen esku-hartzeak, mugikortasun aktiboa bultzatzera bideratuak, gara ditzaten 2017-2018ko ikasturtean.

2.– Laguntza hauen helburua da finantzazioa eskaintzea 2017ko uztailetik 2018ko maiatzera, hiri-espazioek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz eskola-bideak sortu eta dinamizatzeke, eta, modu horretan, eskola-umeen mugikortasun aktiboa eta segurua sustatzea. Eskola-bidetzat joko dira ibilbide zehatzak, aurrez ezarriak eta markatuak, eskola-umeek erabil ditzaketenak ikaste-txeetako joan-etorriak modu aktiboan (oinez, gorpil-oholez, bizikletaz eta abarrez), seguruan eta autonomoan egiteko; hartara, espazio publikoaren erabilera eta gozamina berreskuratuko dute.

## 2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradunak izango dira ikasleen guraso-elkarteak, ikasle-elkarteak eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko Ikastetxeen Irakaskuntza Kooperatiben titularrak, zeinek honako betekizun hauek bete beharko baitituzte:

a) Legez eratuta egongo dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion erregistroan inskribatuta.

b) Ez dute irabazi-asmorik edukiko.

c) Beteta edukiko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari lotutakoak.

d) Diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izango dituzte.

e) Zehapen administratibo edo penala izateagatik diru-laguntzak eta laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu duten elkarrekin ezin izango dute deialdian parte hartu epaiak edo ebazpenak ezarritako aldiran. Era berean, ez dute parte hartzerik izango horretarako ezgaitzen dituen debeku legalen bat duten entitateek, sexu-bazterkeriagatik ezarritako debekuak barne.

f) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua xedatzen diren beste edozein eskakizun, erakundearen izaera juridikoaren arabera aplikatu daitezkeenak.

2.– Erakundeek erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko dute –eskabidearen inprimakian jaso dago–, alde batera utzi gabe organo kudeatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen egiaztatze-jarduerak. Adierazpen horretan, honako hauek jasoko dira: onuradun izateko ezgaitzen duen debekurik ez dutela, eta, bereziki, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari lotutakoak ordainduta dituztela, bai eta diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak ere.

## 3. artikulua.– Deialdiaren aurrekontu-hornidura eta organo kudeatzailea.

1.– 1. artikuluan adierazitako jardueretarako guztizko aurrekontu-zuzkidura laurogeit hamalau mila (94.000) eurokoa izango da.

2.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza da deialdiaren organo kudeatzailea.

## 4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagundu ahal izango dira 1. artikuluan ezarritako jarduerak gauzatzearen ondorio zuzenak diren gastu arruntak, betiere 2017ko uztailetik 2018ko maiatzera bitartean sortu badira, eta 2018ko ekainaren 15a baino lehen ordaindu badira, egun hori barne. Hauek dira diruz laguntzeko moduko gastuak:

a) Proiektuaren dinamizazioa eta koordinazio teknikoa.

b) Ikastetxe eskatzailearen inguruko mugikortasuna aztertzea.

c) Hitzaldiak, tailerrak edo/eta komunikazio-kanpainak antolatzea, ikastetxeko joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeari lotuak.

d) Behar den materiala erostea: txaleko islatzaileak, kartelak, liburuxkak, zirkulazio-seinale eramangarriak, eskola-bidearen seinaleztapena eta abar.

e) Ekimen honetara atxikitzen diren ikasleentzako pizgarriak.

f) Ikastetxeetan, mugikortasun aktiboa errazten duten espazioak egokitzea; esaterako, bizikletarako edo gurgil-oholetarako aparkamendu seguruak sortzea edo handitzea.

2.– Elkarteek edo kooperatibek langile boluntarioen lana balioztatzeko egindako ekarpenak ez dira diruz lagunduko; balioztatze horretarako, orduko 20 euroko muga ezartzen da. Langile boluntarioak balioztatzeko, elkarte edo kooperatibaren inguruko lagunek proiektuaren xedeak lortzeko eta ordainsaririk jaso gabe egindako lanaren kuantifikatze ekonomikoa egiten da.

3.– Ez dira diruz lagunduko honako gastu hauek:

a) Diruz laguntzen diren jarduera horien Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak.

b) Kontuen interes zordunak; finantza-gastuak; inbertsio-gastuak; administrazio-lizentziak; errekarguak, eta administrazio- eta zigor-zehapenak, honako hauek barne direla: ordainketetan berandutzearen ondoriozko zehapenak; zerga, tributu eta tasak edo Gizarte Segurantzako kuotak ez ordaintzearen ondoriozkoak, eta prozedura judizialen eta gatazkak borondatez konpontzeko bestelako prozeduren gastuak ez ordaintzearen ondoriozkoak.

c) Bestelako gastuak, baldin eta, balioespen-batzordearen ustez, beharrezkoak ez badira, laguntzaren xedearekin edo jardueraren exekuzioarekin bat ez badatoz, edo ekonomia- eta efi- zientzia-printzipioen kontrakoak badira.

5. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Agindu honen bidez araututako diru-laguntzak ematea bateragarria izango da beste adminis- trazio publiko edo ente publiko zein pribatu batzuek –nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak– xede bererako emandako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabidee- kin, baldin eta, bakarka hartuta edo batera, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada (gainfinantzaketa). Izan ere, gainfinantzaketarik gertatuz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, jardueraren kostuak finkatzen duen gehieneko mugaraino.

6. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoaren mugak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitekeen zenbatekoaren ehuneko ehunera iritsi dai- teke, eta aurkezturiko proiektu bakoitzeko 6.000 eurokoa izango da, gehienez ere.

Proiektu bakoitzari dagozkion kopuruak esleitu, eta ez bada zehaztutako aurrekontu osoa erabiltzera iristen, proiektu bakoitzaren gehieneko diru-laguntza handituko da, deialdi honen 3.1 artikuluan zehaztutako aurrekontu osoa esleitu arte.

7. artikulua.– Eskabidea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Proiektu bakoitzeko, eskabide telematikoa bete beharko da –eskuragarri dago 21.4 artikuluan zehazten den zuzeneko sarbidean–, eta, gainera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Diru-laguntza zer proiektutarako eskatu den, horri buruzko memoria, agindu honen I. eranskinean ageri den eredu erabiliz. Eredu hori eskuragarri dago euskadi.eus egoitza elektro- nikoan (agindu honen 21. artikulua, izapideak elektronikoki egiteari buruzkoa).

b) Administrazio-erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria:

Ikasleen guraso elkarten eta ikasleen elkarten kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Bazku- nen Errolda Nagusian inskribatuta daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Irakaskuntza-kooperatiben kasuan, EAEko Kooperatiben Erregistroan irakaskuntzako koopera- tiva bezala inskribatuta daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Bilera-aktaren kopia arrunta, deialdi honetan parte hartzeko erabakia jasotzen duena.

d) Proiektua toki-erakunderen batekin edo erkidegoko beste agenteren batekin koordinatuta egiten bada, inplikaturiko agente guztiek izenpeturiko dokumentua, akordioa egiaztatzen duena.

e) Finantzaketa zer jarduera egiteko eskatu den hobeto ezagutzeko beharrezkoa den dokumentu osagarri oro.

8. artikulua.– Eskakerak aurkezteko era eta epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea 2017ko urriaren 11n amaituko da.

2.– Erakunde bakoitzak aurkezten duen proiektu bakoitzeko eskabide bat aurkeztu behar da.

3.– Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, 21. artikuluan adierazitako euskadi.eus egoitza elektronikoa erabiliz.

4.– Identifikazio elektroniko aitortua duten erakundeen ordezkariak aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak, agindu honen 21.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Ordezkariak, erakundeen ordezkarietarako ziurtagiri elektroniko baten bidez identifikatu baldin bada, ez du egiaztatzeko inolako izapiderik egin behar.

b) Pertsona fisikoentzako ziurtagiri baten bidez identifikatu bada, ordea, ordezkariak egiaztatu beharra dauka, ordezkarien erregistro elektronikoan, agindu honen 21.2 artikuluan adierazitakoari jarraituz.

5.– Elkarte edo kooperatiba eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea eta hari atxikitako dokumentazioa. Orobat, eskabidea aurkeztu izanaren ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikulua ezartzen duenari jarraituz.

9. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ikusten badu aurkeztutako eskabideak ez dituela betetzen aurreko artikuluetan xedatutako eskakizunak, hamar egun balioduneko epea emango dio elkarte edo kooperatiba eskatzaileari akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan. Jakinaraziko dio, halaber, hori egin ezean, eskabidea bertan behera uzten duela ulertuko dela; horretarako, Osasuneko sailburuordeak ebazpen bat eman beharko du Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako eran.

10. artikulua.– Datuak eta eskakizunak egiaztatzea.

1.– Erakundeak, eskaeraren bidez, baimena eman ahal izango dio organo kudeatzaileari, dagokion administrazio publikoaren aurrean kontsultatu edo eskatu ditzan erakundearen nor-tasun-datuak eta, halaber, egiazta dezan eskakizunak betetzen direla. Erakundeak baimena ematen duela ulertuko da, eskaeran ez badu espresuki aurkakoa adierazten. Ez badu baimenik ematen, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu derrigorrez.

2.– Tratamendu horretatik salbuetsita daude 7. artikulua d) eta e) letretan adierazten diren dokumentuen bidez egiaztatzeakoak diren betekizun eta baldintzak; dokumentu horiek eskabidearekin batera aurkeztu behar ditu erakundeak.

3.– Organo kudeatzaileak behar beste egiaztapen egin ahal izango ditu prozedura legezkoa dela bermatzeko. Nolanahi ere, laguntzak eman eta ordainketa bakoitza egin baino lehen, beharrezko diren egiaztapenak egingo dira.

4.– Zinpeko adierazpen baten barruan edo harekin batera aurkezten diren datu, adierazpen eta dokumentuetan funtsezko zehaztasun-gabeziaren bat, faltsukeriaren bat edo ez-egiteren bat badago, prozedura bertan behera geldituko da, gertakari horiek jakiten diren unetik, horrek ekar ditzakeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe.

Halaber, gorabehera horien berri jasotzen duen administrazio publikoaren ebazpenak dirua itzultzera behartu dezake interesduna, hala badagokio, eta epe jakin batean xede bera duen beste prozedura bat eskatzeko debekua ezar diezaioke; hori guztia, aplikatzekoak diren arauetan ezarritakoari jarraikiz.

11. artikulua.– Eskabideak balioesteko irizpideak.

1.– Diru-laguntzak ondorengo irizpideetan oinarrituta esleituko dira, kasu bakoitzean zehaztuko den haztapenaren arabera:

a) Diseinuaren kalitate teknikoa (35 puntu, gehienez).

1) Proposatutako jardueraren justifikazioa, zer egoeratan eragin asmo duen identifikatuta eta deskribatuta (5 puntu, gehienez).

2) Xede zehatzak eta aginduaren helburuarekin lotutakoak (10 puntu, gehienez).

3) Jarduera garatzeko faseen deskribapena (10 puntu, gehienez).

4) Jarduera ebaluatzeko proposamena (10 puntu, gehienez).

b) Beste erakunde batzuekin –ikastetxekoekin nahiz udalerrikoekin– koordinazioan aritzea; proiektuan jardungo dutela baieztatu behar da (20 puntu, gehienez).

1) Irakasleen klaustroa (5 puntu, gehienez).

2) Ikasle-elkarteak (5 puntu, gehienez).

3) Udala (5 puntu, gehienez).

4) Auzo-elkarteak edo bestelakoak (5 puntu, gehienez).

c) Jarduerak zenbat hartzaile izango duen, ikastetxeko ikasle guztien kopurua erreferentziatzen hartuta (15 puntu, gehienez).

1) % 5-25. 5 puntu.

2) % 25-50. 10 puntu.

3) % 50-100. 15 puntu.

d) Mugikortasun aktiboari loturiko zeharkako edukiak txertatzea ikastetxearen prestakuntza-programetan: jokabide osasungarriak, jasangarriak eta seguruak (10 puntu, gehienez).

e) Desberdintasun sozioekonomikoetan eta genero-desberdintasunetan arreta berezia jartzea (10 puntu, gehienez).

f) Ikasleek eta/edo irakasleen proiektuan parte hartzeko metodologiak garatzea (10 puntu, gehienez).

1) Proiektua diseinatzeko fasean. 3 puntu.

2) Proiektua prestatzeko fasean, mugikortasunari buruzko azterketan, ibilbide-mapak egiteko lanetan, joan-etorri aktiboa gauzatzeko arazoan identifikazioan, etab. 5 puntu.

3) Proiektua ebaluatzeko fasean. 2 puntu.

2.– Diru-laguntza emateko ezinbestekoa da a) irizpideari dagokion atalean 15 puntu izatea gutxienez, eta guztira 50 puntu izatea gutxienez.

12. artikulua.– Eskabideak balioestea.

1.– Balioespen Batzorde batek balioetsiko ditu eskabideak, eta honako kide hauek izango ditu: Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria (Miren Dorronsoro Iraeta andrea), batzordeburu jardungo duena, eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak Osasun Sailaren lurralde-ordezkaritzetan dituen zuzendariordeak (Joseba Bidaurreazaga Van-Dierdonck jn., Elena Albisua Cortazar and., Juan Carlos Fernández Crespo jn.). Batzordeburuak batzordekideen artean izendatutako pertsonak beteko du kide anitzeko organoko Idazkaritza.

2.– Balioespen-batzordeak dagokion artikuluan ezarritako balioeste-irizpideen arabera balioetsiko ditu eskabideak.

3.– Balioespen-batzordeak zehaztuko du zein den proiektu bakoitzaren puntuazioa eta proiektu horri eman dakioken gehieneko diru-laguntza, betiere agindu honetan finkaturiko irizpideei jarraikiz.

4.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak, laguntzak kudeatzen dituen organoa den aldetik, eta/edo balioespen-batzordeak behar beste informazio eta dokumentazio osagarri eskatu ahal izango diete erakunde eskatzaileei, aurkeztutako proiektua edo jarduera hobeto ulertzeko helburuarekin, betiere.

5.– Agindu honetan ezarritako laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.4 artikuluari jarraituz.

6.– Aurkeztutako eskabideak alderatuz emango dira laguntzak. Horretarako, 12. artikuluan agertzen diren balioespen-irizpideak erabiliko dira laguntzak ematerakoan lehentasunak ezartzeko. Ondoren, puntu gehien lortzen dituzten eskabideei esleituko zaizkie laguntzak, harik eta laguntza-lerro horretarako izendatutako zuzkidura ekonomikoa agortu arte.

7.– Aurkeztutako proiektuen ebaluazio konparatua –ezarritako irizpideen arabera– egin ondoren, eta dagozkien zenbatekoak zehaztu ondoren, agindu honetan horretarako ezarri denaren arabera balioespen-batzordeak ebazpen-proposamena egingo dio Osasuneko sailburuordeari, eta han, hau adieraziko dio: zer diru-laguntza ematea proposatzen duen, zein diren elkarte onuradunak, finantzatuko den proiektu bakoitzaren zenbateko banakatuak, eta, hala badagokio, diru-laguntza ukatu zaien proiektuak zein diren eta zergatik ukatu zaien.

13. artikulua.– Ebazpena, errekurtsioak, ebazteko eta jakinarazteko epea, jakinarazteko modua eta publikotasun-prozedura.

1.– Aurkeztutako eskabideak prozedura bakar batean izapidetuko dira. Eskabideen ebazpenean, interesdunek azaldutako gai guztiak erabakiko dira. Osasuneko sailburuordeari dagokio ebazpen hori ematea, balioespen-batzordearen proposamena kontuan hartuta.

2.– Ebazpenean ezarriko da eskatutako diru-laguntzak ematen edo ukatzen diren. Laguntzak ematea erabakitzen bada, honako hau adierazi beharko da: zein diren elkarte edo kooperatiba onuradunak, guztira zenbateko diru-laguntza emango zaion horietako bakoitzari eta zenbat emango zaion finantzatutako proiektu bakoitzari. Laguntzak ukatzen badira, berriz, zergatik ukatu diren adierazi beharko da.

3.– Prozedura ebatzi eta ebatzitikoa elkarte edo kooperatiba interesdunei jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, gehienez ere, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Epe hori igaro eta ebazpenik argitaratu ez bada, elkarte edo kooperatiba interesdunek diru-laguntzaren eskaera ezetsi dela ulertu ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a) eta 25.5 artikuluetan ezarritako ondorioetarako.

4.– Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta jakinarazpenaren balioa izango du.

5.– Ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

6.– Agindu honek arautzen dituen diru-laguntzak elkarte edo kooperatiba onuradunei esleitu, eta, hala badagokio, ordaindu aurretik, amaituta egon behar dute Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek eta administrazio horren mendeko zuzenbide pribatuko erakundeek emandako antzeko diru-laguntzen esparruan hasita dauden eta oraindik izapidetzen ari diren itzultze- edo zehatze-prozedurek.

14. artikulua.– Laguntzen justifikazioa.

1.– Diruz lagundutako jarduera benetan burutu dela justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Diru-laguntzaren xede den proiektua gauzatu izanaren deskribapen-memoria, euskadi.eus egoitza elektronikoen II. eranskinean jasotakoa.

b) Diru-laguntzaren xede den proiektuaren helburua eta asmoa bete direla dioen ziurtagiria, ikastetxeko ordezkariak egina.

c) Diru-sarreraren eta gastuen zerrenda, eta beste diru-laguntzarik, laguntzarik edo diru-sarrerarik eskuratu bada, hala adieraztea.

d) Diru-laguntzaren xede den proiektua benetan gauzatu dela egiaztatzen duten fakturen edo bestelako ordainagirien kopia arrunta, erakunde eskatzailearen ordezkariak izenpetuta.

e) Proiektua egin dela argi eta garbi uzten duten agiri grafiko osagarriak.

f) Erakunde onuradunak boluntarioen lana balioztatzeko egindako ekarpen propioa justifikatu behar izanez gero, erakundearen legezko ordezkariak izenpetutako ziurtagiria, honako hauek jasota: boluntarioaren datuak (izen-abizenak eta NAN; ordu-kopurua; orduko kostua; guztizko zenbatekoa, eta boluntarioaren sinadura.



2.– Emandako laguntzarekin ordaindutako gastuek diru-laguntza jaso duen jarduera gauza-zean sortutakoak izan behar dute. Behar bezala justifikatutako gastuak hauek dira:

- a) Erakunde onuradunaren izenean igorritako fakturaren bidez justifikatutakoak.
- b) Banku-zordunketako ordainketa-agirien bidez justifikatutakoak (finantza-entitateek egiten dituzte, eta faktura bati dagozkion datuak izaten dituzte, zenbakia eta seriea izan ezik).
- c) Lan-kontratudun langileei dagozkien gastuetan, soldaten ordainagirien bidez justifikatutakoak (ordainagirik eredu ofizialen eta Gizarte Segurantzako kotizazioko aldizkari ofizialen arabera izan behar dute).
- d) Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden noizbehinkako lanetan, enpresariak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek egiten dituztenean (hartzaileak), gastua justifikatzeko, erakunde onuradunak idatzi bat egingo du, eta haren ordezkariak sinatuko du. Idatzi horrek, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu: ordezkariaren, elkartearen eta hartzailearen izen-abizenak edo izen soziala, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea; eragiketaren deskribapena eta guztizko zenbatekoa; idatziaren jaulkipen-data; «hartu dut» eta pertsona hartzailearen sinadura, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipena.
- e) Langile boluntarioak izanez gero, boluntarioen aseguruak diruz laguntzeko moduko gastutzat har daiteke, agindu honetan aurreikusitako diru-laguntza jaso duten eta boluntarioen laguntza izan duten jardueretan. Finantzatu beharreko boluntarioaren aseguruak bi poliza izan behar ditu nahitaez: bata, istripuena, eta bestea, erantzukizun zibilarena. Azken poliza horretan, ez behar bakoitzeko kapital aseguraturua 300.506,05 euro izango da gutxienez, eta aseguruaren urte osoko kuota ordainduko zaie polizako boluntario guztiei. Boluntarioen aseguruak diruz lagundu ahal izateko, aseguratuak egindako egiaztagiria bat adierazi behar da justifikazioan. Egiaztagiria horretan, datu hauek agertu behar dute, gutxienez: erakundeak bere boluntarioentzat kontratatutako aseguru-polizen estaldurak, aseguruan sartzen den pertsona-kopurua eta polizaren guztizko zenbatekoa.

3.– Diru-laguntza jaso aurretik eginiko gastuak ordaindu daitezke jasotako diru-laguntzarekin, baldin eta gastu horiek diru-laguntza jaso duten jardueretan sartzen diren ekintza eta kontzeptuen kostu errealak badira eta 2017ko uztailetik 2018ko maiatzera bitartean egindakoak badira.

4.– Justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2018ko ekainaren 15ean amaituko da, eta egun horixe izango da agiri horiek onartzeko azkena.

5.– Diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko da, izapidetze elektronikoa buruzko 21. artikuluan azaltzen den moduan.

15. artikulua.– Justifikatzeko aurkeztutako dokumentuetako akatsak zuzentzea.

Ikusten bada justifikatzeko aurkeztutako agirietan akatsak daudela edo datuak falta direla, elkarte edo kooperatiba onuradunari hamar egun naturaleko epea emango zaio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, akatsa zuzendu edo falta diren agiriak aurkez ditzan. Eskakizun hori ez badu garaiz eta modu egokian betetzen, dagokion eskakizuna egiaztatu gabe dagoela ulertuko da, eta agindu honen 22. artikuluan aurreikusitako ondorioak aplikatuko dira.

16. artikulua.– Laguntzak ordaintzea.

1.– Diru-laguntzak honela ordainduko dira:

a) % 70: laguntza ematea onartzen den unean, ebazpena onartu eta argitaratu ondoren, eta laguntza espresuki edo isilbidez onartu ondoren, 17.a artikuluan ezarritako epean.

b) Gainerako % 30: diruz lagundutako proiektua egin ondoren, betiere diruz lagundutako proiektua egin dela eta proiektu horren guztizko gastua zein izan den justifikatu eta gero.

2.– Edozein ordainketa egin baino lehen, entitateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari lotutakoak beteta dituela egiaztatuko da, bai eta diru-laguntzen arloko itzulketa-prozeduretatik eratorritako zor guztiak ordaindu dituela ere.

17. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Alde batera utzi gabe indarrean dagoen araudiak xedatzen dituen eta ezartzekoak diren beste betebeharrak batzuk, eta, batez ere, ezertan galarazi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuak eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua ezarritakoa, agindu honetan ezarritako diru-laguntzen onuradun diren erakundeek edo kooperatibek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Esleitutako diru-laguntza onartu behar dute. Laguntza onartutzat joko da baldin eta elkarte eta kooperatiba onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz laguntzari uko egiten diru-laguntza eman izanaren ebazpena EHAAn argitaratu eta hamabost eguneko epean.

b) Diru-laguntzaren xede den proiektua gauzatu beharko dute, eta jasotako laguntza guztia bideratu beharko dute horretara.

c) Aldaketaren bat izan bada diru-laguntzak ematerakoan eskatu eta kontuan hartu den betekizunen batean, horren berri eman beharko dute, aldaketa gertatu eta 5 egun balioduneko epean gehienez ere.

d) Helburu berbererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideren bat lortu bada beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen baten aldetik, horren berri eman behar diote organo kudeatzaileari, hori gertatu eta 5 egun balioduneko epean gehienez ere.

e) Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren aurrean justifikatu behar dute diru-laguntza emateko edo baliatzeko bete beharreko betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela, bai eta jarduera egin dutela ere.

f) Osasun Sailari laguntza emango diote jarduera horiek egiaztatu, ikuskatu, segimendua egin, ebaluatu eta kontrolatzeko prozeduretan, eta, gainera, honako kontrol-saio hauen mende jarriko dira: Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkionak –Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargura emandako laguntzak diren heinean–, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren berariazko araudian aurreikusitakoak.

g) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak –dokumentu elektronikoak barne– bost urtez gorde behar dituzte, egiaztapen- eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke.

h) Egiten diren agiri eta publizitate guztietan, Osasun Sailaren babesa dutela aipatu beharko dute. Aipamen hori Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan ezarritakoaren arabera txertatuko da: <http://goo.gl/z10BRe>

i) Aurkeztutako dokumentazioaren informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea emango zaio Osasun Sailari, dohainik eta era ez-esklusiboan, eta argitaratzeko moduko formatuan, Osasun Sailaren informazio-sisteman sartu eta erabiltzeko, eta bai zabaldu eta/edo argitaratzeko ere formatu bibliografiko, ikus-entzunezko, informatiko edota teknika erabiltzen uzten duen edozein bide baliatuz.

#### 18. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntzak emateko ebazpena alda liteke baldin eta diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere, diru-laguntzaren helburua betetzat jotzen bada– eta, hala badagokio, diru-laguntza horrekin batera Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako diru-laguntzaren bat edo laguntzaren bat jaso bada. Horretarako, dagokion aldaketa-ebazpena emango du Osasuneko sailburuordeak, eta, han, esleitutako diru-laguntzen zenbatekoak egokituko dira. Horiek emateko, honako irizpide eta mugak hauek aplikatuko dira:

a) Gastuen justifikazioa diru-laguntzarako aurkeztutako eta aintzat hartutako aurrekontua baino baxuagoa bada, % 25 edo gutxiagoko aldearekin, eta hasieratik aurreikusi diren helburu guztiak lortu baldin badira, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da proportzio beraren arabera eta dagokion aldaketa-ebazpenaren bidez.

b) Aurkeztutako aurrekontuari dagokionez, % 25 baino gehiagoko aldea baldin badago, diru-laguntzarako eskubidea galduko da.

Bi kasuetan, soberan jaso dituzten zenbatekoak itzultzera behartuta egongo dira entitate onuradunak, 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.

#### 19. artikulua.– Diru-laguntza jaso duen jardueraren segimendua.

Osasun Sailak komenigarri irizitako alderdi guztiak gainbegiratuko, ikuskatuko eta egiaztatuko ditu lege honetan ezarritako arau guztiak betetzen direla bermatzeko. Era berean, edonoz eman ahal izango die erabilera publikoa laguntza hauen bidez finantzatutako programa eta jardueren edukiari eta emaitzei.

#### 20. artikulua.– Datuak babestea.

Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak eskatzean ematen diren datuak «Laguntzak jasoko dituzten erakundeak» fitxategian sartuko dira, 2011ko abenduaren 22ko Agindua (2012ko urtarrilaren 12ko EHAA, 8. zk.) aldatzen duen Osasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 2ko Aginduan (2014ko ekainaren 23ko EHAA, 117. zk.) ezartzen den moduan; agindu horren bitartez, arautzen dira Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren (gaur egungo Osasun Saila) izaera pertsonaleko datuen fitxategiak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesten dituen 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz. Fitxategi horretako datuak ezin zaizkie hirugarrenei edo beste erakunde batzuei utzi, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak erakunde eskatzaileen laguntzak kudeatzeko baino ez ditu erabiliko. Nahi izanez gero, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil ditzake nahi duenak, legean xedatutakoarekin bat etorritz; horretarako, idazki bat igorri beharko dio Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari.

#### 21. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Elkarre edo kooperatiba interesdunek bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dituzte eskubiak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Ordezkarien erregistro elektronikoa buruzko informazioa eskuragarri dago euskadi.eus-en egoitza elektronikoa honetan: [https://euskadi.eus/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/egoitza\\_ordezkarien\\_erregistro/es\\_egoitza/egoitza\\_representantes.html](https://euskadi.eus/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/egoitza_ordezkarien_erregistro/es_egoitza/egoitza_representantes.html)

3.– Ordezkariek sinadura elektronikoa aitortuko sistemen bidez identifikatuko dira. Identifikazio elektronikoa egiteko onartutako baliabideak eskuragarri daude, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elek-

tronikoan: [https://www.euskadi.eus/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/certificados\\_admitidos/es\\_cert\\_ele/certificados\\_electronicos.html](https://www.euskadi.eus/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/certificados_admitidos/es_cert_ele/certificados_electronicos.html)

4.– Laguntzak izapidetzeko jarraibideak, izapidetze elektronikorako zuzeneko sarbidea eta agindu honetan agertzen diren eranskinak euskadi.eus-eko honako egoitza elektronikoko honetan daude: <http://goo.gl/iNQq9j>

5.– Eskabidearen ondorengo izapideak eta izapideen jarraipena bide elektronikoen bidez egin beharko dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko honen bidez: <http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>

## 22. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Betebeharrak betetzen ez dituen entitate onuradunak laguntza jasotzeko eskubidea galduko du. Eskubide hori galdu dela deklaratzeko berekin dakar jasotako zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra, bai eta sortutako berandutze-interesak ere, ordainketa egin zen unetik laguntza itzuli beharra erabakitzen den egunera artekoak.

2.– Agindu honen 17. artikuluan adierazten den edozein betebeharrak bete ezean, jasotako laguntza itzuli beharko da. Artikulu horretan jasotzen ez denerako, aplikatzekoak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 eta 53.2 artikuluetan xedatzen diren itzulketa-arrazoiak, bai eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1 artikuluko arrazoiak ere. Azken hori diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91., 92. eta 93. artikuluen bidez garatzen da.

3.– Agindu honen 5. artikuluan xedatzen denaren arabera, halaber, jasotako laguntza itzuli beharko da emandako laguntzaren zenbatekoak –bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina batera– proiektuaren kostua gainditzen duenean. Kasu horretan, aipatutako kostuari dagokionez soberan jasotako zenbatekora eta dagozkion berandutze-interesetara mugatuko da itzultzeko betebeharra.

4.– Era berean, itzulketa egin beharko da baldintzak aldatzen badira era honetan: gastuen justifikazioa aurkeztutako aurrekontua baino baxuagoa bada, 18. artikuluan adierazten den bezala.

Artikulu horretako a) letran aipatzen den kasuan, laguntzaren zenbatekoari dagokionez soberan jasotako zenbatekoa itzuli beharko da, laguntzaren aldaketa-ebazpenaren arabera. Deialdiko 11. artikuluan jasotzen den eskabide- balioespenari dagozkion irizpideei jarraituz bideratuko da ebazpen hori.

b) atalean aipatzen den kasuan, itzulketa erabatekoa izango da; hau da, jasotako zenbatekoa edo zenbatekoak osorik itzuli beharko dira.

5.– Osasuneko sailburuordearen bitartez hasi eta burutuko da itzulketa-prozedura, beharrezko prozesuak izapidetu eta gero. Prozedura abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera izapidetuko da. Horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermea eta itzulketak arautu eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta eginbeharrak ezartzen dira.

6.– Itzultzen diren diru-kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen bidez iragarritako deialdia eta berau garatzeko jarduketak honako xedapen hauen mende egongo dira: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean oinarrituko

araudi gisa ezarritakoaren mende eta Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren mende. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolaraueti buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren VI. tituluak ezarritakoa aplikatuko zaie.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera izapidetuko da prozedura.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 23a.

Osasuneko sailburua,  
JON DARPÓN SIERRA.

2017ko ekainaren 6a, asteartea



OSASUN SAILA  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD  
Dirección de Salud Pública y Adicciones

## I. ERANSKINA

### IKASLEEN MUGIKORTASUN AKTIBOA SUSTATZEKO PROIEKTUAREN AZALPEN MEMORIA

Izartxo (\*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

#### DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK

Toki-erakundearen izena: \* \_\_\_\_\_

IKZ: \*

Helbidea: \* \_\_\_\_\_ zk: \_\_\_\_\_ Pisua: \_\_\_\_\_ Letra: \_\_\_\_\_

Udalerrria: \* \_\_\_\_\_ Lurraldea: \* \_\_\_\_\_ PK: \*

Telefonoa: \*  Faxa:

E-mail: \* \_\_\_\_\_

#### HARREMANETARAKO PERTSONAREN DATUAK

Lehen abizena: \* \_\_\_\_\_ Bigarren abizena: \* \_\_\_\_\_

Izena: \* \_\_\_\_\_

Telefonoa: \*  Faxa:

E-mail: \* \_\_\_\_\_

#### JARDUERAREN AURREKONTUA

Aurrekontua guztira: \* \_\_\_\_\_ €      Aurrekontua BEZik gabe: \* \_\_\_\_\_ €

#### BANAKATUTAKO AURREKONTUA (BEZIK GABE)

Faseak	Aurrekontua
<b>Total</b>	

**DIRU-LAGUNTZA ZER JARDUERETARAKO ESKATZEN DEN**

Izenburua: \* \_\_\_\_\_

**PROIEKTUAREN AZALPEN TEKNIKO XEHEA****1. Justifikazioa** (joratu nahi den egungo egoera)**2. Xede espezifikoak****3. Proiektuaren azalpena, hauek jaso behar dituenak: garatuko diren jarduerak eta balioesten den aurrekontua**

## 4. Proiektuaren kalitatea.

a. Komunitateko lana: Zentroko eta udalerriko erakundeekin antolatuta garatuko da proiektua? (Irakasleen klaustroa, ikasleen elkarteak, udala, auzo-elkarteak edo beste batzuk). Azaldu zeintzuk.

b. Xede-taldea: Zenbat pertsonari dago bideratuta jarduera, zentroko ikasleen guztizko kopuruari dagokionez?



2017ko ekainaren 6a, asteartea

c. Prestakuntza-programa: Mugikortasun aktiboari buruzko edukiak sartuko dira eskola-bidean sartuta dauden eskola-ikastaroetako prestakuntza-programetan? Familiei edo klaustroari bideratutako prestakuntza-jardunaldirik antolatuko da?

d. Dinamika parte-hartzaileak: Ikasleek edota irakasleek parte hartuko dute diseinuaren fasean, mugikortasunaren azterketan, ibilbide-mapak egitean, lekualdaketa aktiborako arazoen identifikazioan edota proiektuaren ebaluazioan?

2017ko ekainaren 6a, asteartea

e. Arreta berezia desberdintasun sozioekonomikoei, generoari, migratzaileei, desgaitasunari eta abarri. Eskola-bidearen programazioan e. kontuan hartuko dira ikasle pobreenak edo behar bereziak dituztenak? Ikasle neskek erabiltzea sustatu da?

**5. Proiektuaren ebaluazioa.**

a) Emaizten ebaluazioa: Zenbaketan kontuan hartuko da zentroan pertsonak/lekualdaketak areagotu izana edo motordun ibilgailuak murriztu izana? Jardueretara bertaratu diren pertsonen kopurua zenbatuko da?

2017ko ekainaren 6a, asteartea

b) Prozesuaren ebaluazioa. Aurreikusitako ebaluazioak egin diren, zenbat elkarrek edo erakundek parte hartu duten eta pertsona/erakunde parte-hartzaileen inplikazioa nolakoa izan den baloratuko da? Asebetetze-inkestak egingo dira?

c) Eraginaren ebaluazioa. Ekimena abiarazi izanak inplikaturako pertsonen ideiak, jarrerak eta jokaerak eraldatu dituen baloratuko da? (ikasleak, familiak, irakasleak...) Jardueren ostean ikasleen, klaustroaren eta familien trebetasun-garapena neurtu den baloratuko da?

### JARDUERA GAUZATZEKO EPEA

(Jarri noiz hasi eta bukatuko den, edo, bestela, noiz gauzatzea aurreikusi den)

Jardueraren hasiera-data: \* \_\_\_\_\_

Jardueraren amaiera-data: \* \_\_\_\_\_

### BESTE FINANTZIAZIO ITURRI BATZUK

Baduzu beste finantziazio iturririk?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
<b>Zein?</b>	<b>Zenbatekoa</b>
<b>Guztira</b>	

2017ko ekainaren 6a, asteartea

Beste laguntzarik eskatu duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
<b>Zein erakunderi?</b>	<b>Eskatutako zenbatekoa</b>	<b>Emandako zenbatekoa</b>
<b>Guztira</b>		

**DEIALDI HONETAN ESKATZEN DEN ZENBATEKOA**

<b>Zenbatekoa</b>	<b>% Aurrekontuetako guztira</b>

2017ko ekainaren 6a, astearta



## II. ERANSKINA

### IKASLEEN MUGIKORTASUN AKTIBOA SUSTATZEKO PROIEKTUA GAUZATU DELA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA

Izartxo (\*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

#### DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK

Toki-erakundearen izena: \* \_\_\_\_\_

IKZ: \*

Helbidea: \* \_\_\_\_\_ zk: \_\_\_\_\_ Pisua: \_\_\_\_\_ Letra: \_\_\_\_\_

Udalerrria: \* \_\_\_\_\_ Lurraldea: \* \_\_\_\_\_ PK: \*

Telefona: \*  Faxa:

E-mail: \* \_\_\_\_\_

#### HARREMANETARAKO PERTSONAREN DATUAK

Lehen abizena: \* \_\_\_\_\_ Bigarren abizena: \* \_\_\_\_\_

Izena: \* \_\_\_\_\_

Telefona: \*  Faxa:

E-mail: \* \_\_\_\_\_

#### DIRU-LAGUNTZA ESKATU DEN JARDUERAREN IZENA

Izenburua: \* \_\_\_\_\_

**DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DEN PROIEKTUAREN AZALPEN-MEMORIA**

## 1. Proiektuaren kalitatea.


a. Komunitateko lana: Zentroko eta udalerriko erakundeekin antolatuta garatu da proiektua? (Irakasleen klaustroa, ikasleen elkarteak, udala, auzo-elkarteak edo beste batzuk). Azaldu zeintzuk.

b. Xede-taldea: Zenbat pertsonari bideratu zaio jarduera, zentroko ikasleen guztizko kopuruari dagokionez?


c. Prestakuntza-programa: Mugikortasun aktiboari buruzko edukiak sartu dira eskola-bidean sartuta dauden eskola-ikastaroetako prestakuntza-programetan? Familiei edo klaustroari bideratutako prestakuntza-jardunaldirik antolatu da?

2017ko ekainaren 6a, asteartea

d. Dinamika parte-hartzaileak: Ikasleek edota irakasleek parte hartu dute diseinuaren fasean, mugikortasunaren azterketan, ibilbide-mapak egitean, lekualdaketa aktiborako arazoan identifikazioan edota proiektuaren ebaluzioan?




e. Arreta berezia desberdintasun sozioekonomikoei, generoari, migratzaileei, desgaitasunari eta abarri. Eskola-bidearen programazioan kontuan hartu dira ikasle pobreenak edo behar bereziak dituztenak? Ikasle neskek erabiltzea sustatu da?



## 2. Proiektuaren ebaluzioa.

a) Emaizten ebaluzioa: Zenbaketan kontuan hartu da zentroan pertsonak/lekualdaketak areagotu izana edo motordun ibilgailuak murriztu izana? Jardueretara bertaratu diren pertsonen kopurua zenbatu da?



2017ko ekainaren 6a, asteartea

b) Prozesuaren ebaluazioa. Aurreikusitako jarduerak egin diren baloratu da? Zenbat elkartek edo erakundek hartu dute parte, eta nolakoa izan da pertsona/erakunde parte-hartzaileen inplikazioa? Asebetetze-inkestak egin dira?

c) Inpaktuaren ebaluazioa. Ekimena abiarazi izanak inplikaturako pertsonen ideiak, jarrerak eta jokaerak eraldatu dituen baloratu da? (ikasleak, familiak, irakasleak...) Jardueren ostean ikasleen, klaustroaren eta familien trebetasun-garapena neurtu den baloratu da?



**BESTE FINANTZIAZIO ITURRI BATZUK**

Baduzu beste finantziario iturririk?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
<b>Zein?</b>	<b>Zenbatekoa</b>
<b>Guztira</b>	

Beste laguntzarik eskatu duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
<b>Zein erakunderi?</b>	<b>Zenbatekoa</b>
<b>Guztira</b>	

Adierazten dut justifikazio honetan eta justifikazioari erantsitako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla.